

JESUS ETA MISIO-LAGUNAK

1

Aita Jainkoak bialdu zaitu
erruki haundiz gugana,
zure ardura: zelan beteko
Aitak emondako lana.
Hori izan zan zure bizitzan
ametsa eta afana,
zure jan eta edana.
Aitaren nahia: bere Erreinuara
bihurtzea mundu dana;
horren egarriz bizi eta hil
zinan, o Jesus laztana!

3

Etxean bertan edo kalean
badaukagu nun zer egin,
bakoitzak doguz gure dohaiak,
euren arabera ekin.
Batzutan poza hartzen dogu ta
gehienetan neke ta min,
txandan datoz alkarrekin.
Ez daigun ahaztu ez Zuk ta ez guk
erein-ahala batu ezin!
Gurea beti ereitea da,
hor egin daigun ahalegin!

5

Zuk bete dozu Aitak emonda
munduko eginkizuna,
Zuk hasitako bidea da guk
jarraitu behar doguna.
Zurekin, Jesus, lankide izan?
baietz da nire erantzuna,
galdu ez badot zentzuna!
Banandu nahi dot Zuk niri dohain
lehendik emon deustazuna;
gaurtik aurrera hemen daukazu
zure misio-laguna.

2

Baztarrik-baztar hor hasi zinan
Jesus misiolaria,
munduan martxan ipini nahirik
Aitatxoren guraria:
Begi-aurrean gori ta guri
helduta soloaria,
alperrik galtzen garia!
“Ene lagunok, egin Aitari
uste osoz eskaria:
“Aita Jainkoa, bial eiguazu
langile on ugaria”

4

Erein zenduan Erreinuaren
hazia gure lurtean,
agindu hauxe jaso genduan
zeure azken agurrean:
“Nire bidea zuok jarraitu
ahal dozuen apurrean
ta ez bizi bildurrean.
Beti izango nozue hemen
gau t’egun zeuon hurrean;
zuok zaree nire lekuko
gizon guztien aurrean”

6

Nok, eta Zuk ni deitu nozu gaur
betiko maitasunean!
Nok, eta Zuk ni behar nozula
Erreinurako lanean!
Bihotz osoaz *baietz* dinotsut
neure txikitasunean,
dei egin nahi dozunean!
Nik gitxi ahal dot, baina badakit
Zeu zagoz aldamenearn;
hemen naukazu, bialdu naizu,
Jesus, zeure Izenean!